

TREBAKUNTZA 2013-12: DAGOKIONEZ/DAGOKIONEAN

Administrazioko testuetan nahiz bestelako idatzietan, azken aldian sarritan ikusi ditugu nahasita “dagokionez” eta “dagokionean” formak; bigarren hau erabiltzen dugu maiz “dagokionez” formaren ordeaz.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Landu beharreko gaiari **dagokionean**, arkitektoaren iritzia falta da.*
2. * *Atzo aipatutakoari **dagokionean**, azkenean errekurtsua jarriko du Estatuko abokatuak.*
3. * *Ez du gezurrik esan, bere jarrerari **dagokionean**.*
4. * *Egin beharreko lanei **dagokienean**, brigadakoek esan dute jende gehiago beharko dela.*

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

Gaztelaniazko "en lo que respecta" esaldiak sortzen duen nahastea dugu hau. Izan ere, "dagokionean" esapidea **denborazkoa** da beti, hau da, "noiz" galderari erantzunez erabiltzen da euskaraz. Adibidez: "Dagokionean emango dizut erantzuna".

Kontuan izan, beraz, denborazkoa denean bakarrik erabili behar dela "dagokionean", eta gainerakoetan, berriz, "dagokionez".

Oker: "*Gai horri dagokionean...*"

Zuzen: "*Gai horri dagokionez...*"

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Hona hemen esaldiak, behar bezala idatzita:

1. Landu beharreko gaiari **dagokionez**, arkitektoaren iritzia falta da.
2. Atzo aipatutakoari **dagokionez**, azkenean errekurtsua jarriko du Estatuko abokatuak.
3. Ez du gezurrik esan, bere jarrerari **dagokionez**.
4. Egin beharreko lanei **dagokienez**, brigadakoek esan dute jende gehiago beharko dela.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99